



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 4a

111. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-24/LEY-00010. Foru Legea, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi gutzira 358.282 euroko aparteko kreditua ematekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultzatzea dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (5. or.).

—11-24/MOC-00108. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tipologia eta garapen jasangarriko adierazle berriak ezar eta zabal ditzan, Nafarroan turismoa sustatzeari eta garatzeari dagokienez. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (7. or.).

—11-24/MOC-00110. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gobernuaren jardunaren arlo guztietan instituzionaliza dezan gazteen ikuspegiaren ebaluazioa. Kevin Lucero Domingues jaunak aurkeztu du (8. or.).

—11-24/MOC-00111. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan osasun arloko profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko plan bat taxutzera. María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkeztu du (9. or.).

—11-24/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita C mailan sar ditzan Ezgaitasunaren Arreta Integralerako San José zentroko zaintzaileak. María Isabel García Malo andreak aurkeztu du (10. or.).

—11-24/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu dute (11. or.).

—11-24/DEC-00042. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Dajla-ko wilaya-ko herritarrei. Eledunen Batzarrak onetsi du (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 11-24/POR-00304. Galdera, ETaren biktimei egindako azken omenaldietan Foruzaingoa egon ez izanari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00305. Galdera, landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00306. Galdera, berdintasun-teknikariaren lanpostua betetzeko deialdiari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00399. Galdera, SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00400. Galdera, toki-entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00401. Galdera, bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00402. Galdera, Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00403. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak itxita edukitzeko aurreikusten den egutegiari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00404. Galdera, Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00405. Galdera, Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00406. Galdera, Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).
- 11-24/PES-00407. Galdera, Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).
- 101/2024 Ebazpena, urriaren 1ekoa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez agintzen baita ahoz erantzuteko galdera bihur dadila osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzko galdera idatzia (20. or.).
- 102/2024 Ebazpena, urriaren 1ekoa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez agintzen baita ahoz erantzuteko galdera bihur dadila erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Ekialde Hurbileko gatazka dela-eta (21. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-24/LEY-00010. Foru Legea, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi guztira 358.282 euroko aparteko kreditua ematekoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi guztira 358.282 euroko aparteko kreditua emateko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi guztira 358.282 euroko aparteko kreditua ematekoa

ZIOEN AZALPENA

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak, Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko Departamentuak, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak eta Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak txostenak igorri dituzte, non agertzen baita 2024an zenbait gasturi aurre egin beharra

dagoela horietarako aurrekontu-partida egokirik egon gabe.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehenera eraman da, hurrengo ekitaldira arte berandatu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako krediturik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru-lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Orobat, haren bigarren paragrafoan xedatzen denez, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzeko ahal da aparteko kreditua, are Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege horren xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenekin ere.

1. artikulua. Aparteko kreditua ematea.

Guztizko zenbatekoa 358.282 eurokoa duen aparteko kreditua ematen da 2024ko aurrekontuaren kargura, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontu-partida hauetan aplikatuko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
031000 03100 4609 462103 SEM Iruñeko Udalarekiko hitzarmena, sarean ikuspegi dialogikoz lan egitekoa	123.282
210002 21400 4609 922103 Toki erakundeentzako transf. Erronkari, Otsagabia, Garralda, Auritz, Erro, Aurizberri eta Luzaide ikastetxe publikoen funtzionamendu-gastuak	120.000
820001 82500 7819 425211 Anizko energia-komunitatearentzako dirulaguntza	30.000
820001 82500 7609 425223 Arbeitzako Kontzejuarentzako dirulaguntza, energia-komunitateak sustatzekoa	7.000
920005 93100 4819 231B59 Hitzarmena, erabateko inklusioarekin, "Inklusiorako eraldaketa digitala Nafarroan" proiekturakoa	38.000
A50000 A5000 7609 3361E9 Uharteko Udalarentzako transferentzia: Entrenamendurako futbol-zelaia egitea	40.000

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

Aipaturiko 358.282 euroko zenbatekoa duen aparteko kreditu hau honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kargura finantzatuko da:

AURREKONTU-PARTIDA	ZENBATEKOA
031000 03100 4609 462100 SEM Toki erakundeekiko hitzarmenak, sarean ikuspegi dialogikoz lan egitekoak	123.282
210002 21400 4809 922100 PIRIBIZI dirulaguntzak: Pirinioetan erronka demografikoari aurre egitea	120.000
820001 82500 7609 425219 (E) Baztango Anizko herriarentzako dirulaguntza, energia-trantsizioko proiektu baterakoa	30.000
820001 82500 7609 425222 (E) Arbeitzako Kontzejuarentzako dirulaguntza, energia-komunitate bat sortzekoa	7.000
920005 93100 7819 231B08 (E) Hitzarmena, ERABATEKO INKLUSIOarekin, "Inklusiorako eraldaketa digitala Nafarroan" proiekturakoa	38.000
A50000 A5000 7609 3361C9 (E) Uharteko Udalarentzako transferentzia: Futbol-8ko zelaian soropil artifiziala jartzea	40.000

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00105. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultza dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina berriz abian jartzera premia-tzeko mozioa

Zioen azalpena

1. Haurren obesitatearen arazoa gero eta handiagoa da gaur egungo gizartean, eta Nafarroa ez da salbuespena.

Haurren obesitatearen prebalentzia areagotu egin da azken urteotan, nazioan gertatzen denaren antzera. Azken azterlanen arabera (Nafarroako Osasun Komunitarioaren Behatokia. Osasun Publikoaren Institutua. Azken berrikusketan, 2024ko martxoa), 6tik 9 urtera bitarteko haurren % 12k dauka, gutxi gorabehera, obesitatea, eta % 30ek, berriz, gehiegizko pisua. (6tik 9 urtera bitarteko haurren taldea da prebalentziarik handiena daukana gehiegizko pisuari, obesitateari eta obesitate larriari dagokienez).

2. Auzi honen arrazoi nagusiak zuzenean lotuta daude adin horretakoen bizimoduekin, eta eragin nabarmena dute haurren obesitatean:

a) Elikagai ultraprozesatu eta edari azukredun gehiegi kontsumitzea eta fruitu eta barazki gutxiegi kontsumitzea.

b) Sedentarisismoa: jarduera sedentarioetan denbora gehiago ematea (esaterako, telebista ikusten edo gailu elektronikoekin jolasten) eta jarduera fisikoari emandako denbora gutxitzea.

c) Faktore sozioekonomikoak: maila sozioekonomiko baxuagoko familiek haurren obesitatearen prebalentzia handiagoa izan ohi dute, mugatua-goa daukatelako elikagai osasungarriak lortzea eta aisialdiko jarduerak egin ahal izatea.

3. Eragina osasunean:

Haurren obesitateak osasuneko hainbat arazo sor ditzake epe motzean nahiz luzean, esate baterako, 2 motako diabetesa, hipertentsioa, bihotz-arazoak eta autoestimua baxua eta depresioa bezalako adimen-osasuneko arazoak.

4. Ekimenak eta politikak Nafarroan:

Eskoletan ohitura osasungarriak sustatzeko zenbait programa ezarri ditu Nafarroak azken 20

urteotan, hala nola jarduera fisikoa sustatzea eta eskolako menuen kalitatea hobetzea.

Egun, Osasun Publikoaren Institutuak abian du Elikadura Osasungarriaren Nafarroako Estrategia, zeinak, funtsean, nutrizio-hezkuntza eta haurrengan eta gazteengan ohitura aktiboak sustatzea jasotzen baititu.

2005-2006 ikasturtean, Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak aztura osasungarriak sustatzeko kanpaina berritzaile bat jarri zuen abian zenbait ikastetxetan.

Programa horrek honako helburu orokor hauek zeuzkan:

a) Esku-hartze "integral" bat egitea, gurasoak, irakasleak, ingurunea eta haurrak berak inplikatuko dituen, bizimodu osasuntsuaren sustapena bultzatuz. Horretarako, elikadura osasungarriekin lotutako gomendioak ematen dira, bai eta eguneroko bizitzan jarduera fisiko gehiago egitearen behararekin lotutakoak ere.

b) Gaixotasun kardiobaskularra izateko arrisurfaktoreak murriztea.

c) Elikadurari eta jarduera fisikoari buruzko oinarritzko informazioa ematea ikasleei oro har eta obesitatea eta gehiegizko pisua duten haurrei bereziki.

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren webgunean ikus daiteke kanpaina horrek zer eragin eta ondorio positibo izan dituen parte-hartzaileengan.

2018an, Nafarroako Kirolaren Institutuak, Miguel Indurain Fundazioarekin eta Pirinio Atlantikoetako beste 5 organismo publikorekin batera, programa hori gaurkotu eta zabaldu du, mugaz gaindiko ANETO proiektuaren bidez.

Programa horrek honako helburu orokor hauek zeuzkan:

a.- Mugaz gaindiko esku-hartze integrala egitea 6tik 8 urtera bitarteko haurren obesitatea eta gehiegizko pisua prebenitzeko, gurasoak, irakasleak eta ingurunea ere inplikatu dituen, bizimodu osasuntsua sustatzeko.

b.- Gizartea sentsibilizatzea, behar bezala elikatzearen eta ariketa fisikoa egitearen garrantziaz, bizitzako lehen urteetatik hasita.

c.- Ariketa fisikoa areagotzeak eta elikadura hobetzeak, biek batera, gorputzaren osaeran eta gaitasun fisikoan dauzkaten ondorioak aztertzea.

d.- Europako hezkuntza-sarerako oinarriak sortzea, eskolen arteko interakzioa eta jardunbide egokien trukea laguntzeko.

2021eko urtarrilean eman ziren jakitera kanpaina horren emaitzak, zeinak oso balorazio ona jaso baitzuen.

2021etik hasita, Nafarroako Kirolaren Institutuak, Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez, haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina horiek egiteari utzi dio, halako moduan non abandonatu egin baitu osasuna jarduera fisikoaren bidez sustatzeko arlorik garrantzitsuenetariko bat.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzen dugu Kirol Medikuntza eta Ikerketaren Zentroaren bidez berriz egin eta bultzatzea dezan 6tik 9 urtera bitarteko ikasleen artean haurren obesitatea prebenitzeko kanpaina bat.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-24/MOC-00108. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita tipologia eta garapen jasangarriko adierazle berriak ezar eta zabal ditzan, Nafarroan turismoa sustatzeari eta garatzeari dagokienez

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita tipologia eta garapen jasangarriko adierazle berriak ezar eta zabal ditzan, Nafarroan turismoa sustatzeari eta garatzeari dagokienez.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako turismoari buruzko datuek goranzko joera erakusten dute, halako moduan non kultura- eta natura-aniztasunari dagokionez destino giltzarri gisa duen posizioa finkatzen ari baita. Pandemiaren ondoren, sektorea azkar suspertu da, turismo-destinoak eta esperientziak bilatzeko ohituren aldaketetan oinarrituta.

Nafarroak ez du beste autonomia-erkidego batzuetan gertatzen den masifikaziorik, baina bisitari-kopurua handituko dela aurreikusten da. Hori dela-eta, turismoari buruzko ikuskera didaktikoa goa edukitzea ahalbidetuko duten datu zehatzetan oinarritutako irizpideetan sakondu beharra dago, Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) eta Nazio Batuen 2030eko Agendarekin bat eta,

hortaz, toki-entitateen ereduaren eta garapenaren jasangarritasunarekin bat.

Nafarroak potentzial turistiko paregabea du, bere naturaren aberastasunen, ondare historikoan eta kultura-, kirol-, gastronomia- eta kongresu- eskaintzan oinarritua. Funtsezkoa da sektorearen hazkundera kuantitatiboa ez ezik, kualitatiboa ere izatea, ingurumenean, gizartean eta ekonomian duen inpaktuari arreta berezia eskainiz. Sektore turistikoaren metrikak bisitari-kopuruan eta zuzeneko eragin ekonomikoan oinarritu ohi dira. Hala ere, premiazkoa da beste adierazle batzuk baliatzea, turismoaren jasangarritasuna, turismo mota eta horren ezaugarriak eta GJHei eta tokiko garapenari egiten dien ekarpena islatzeko, gure lurraldearen berezitasunak kontuan hartuta.

Nafarroan, garapen turistikoa eredu erresilienteago eta jasangarriago baterantz bideratu behar da, non Foru Komunitateko eremuen ezaugarri geografikoak, klimatikoak eta sozialak kontuan hartuko baitira.

Toki-entitateek eta sektore turistikoak zeregin erabakigarria dute GJHak espazio turistikoetan lurraldeko kokatzeko eta ereduaren jasangarritasuna lortzeko, zuzenean laguntzen baitute horiek lortzen.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du Nafarroan turismoaren sustapenean eta garapenean tipologia eta garapen jasangarriko adierazle berriak ezar eta heda ditzan.

2. Toki-entitateekin eta/edo turismo-entitateekin lankidetzan jardun dadin, halako moduan non, dauzkan eskumeneren barruan, turismoak Nafarroan duen inpaktua (tipologikoa, soziala eta/edo ingurumenaren arlokoa) neurtzeko adierazle estatistikoak sortzea ahalbidetuko duten datuen bilketa eta hedapena gaurkotu ditzaten.

Iruñean, 2024ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/MOC-00110. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita gobernuaren jardunaren arlo guztietan instituzionaliza-dezan gazteen ikuspegiaren ebaluazioa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita gobernuaren jardunaren arlo guztietan instituzionaliza-dezan gazteen ikuspegiaren ebaluazioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernuak premia-tzen da gobernuaren jardunaren arlo guztietan instituzionaliza-dezan gazteen ikuspegiaren ebaluazioa.

Zioen azalpena

Gazteriaren arloko politikak Espainiako Konstituzioaren 48. artikulua baitan gauzatzen dira. Bertan xedatzen denez, botere publikoek baldintza egokiak sustatuko dituzte gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean askatasunez eta eraginkortasunez parte har dezaten. Gazteria gizarteratzeari buruzko konstituzio-agindua arau, entitate eta politika publikoen bidez gauzatu da demokrazia-garaian, betiere autonomia-erkidegoekin batera.

Gazteriaren arloko politika publikoetan topaketa, elkarrizketa, parte-hartze eta aholkularitzarako bideak sortzeko, izan dira, alde batetik, eskumenak egikaritzeko legezko edo erregelamenduzko esparru bat, eta bestetik, horiek betetzeko erabakitak, gazteek gizarterean behar bezala parte har dezaten, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren

eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren bitartez. Kogobernantza horrek parte hartzeko bideak ireki ditu pixkanaka azken hamarkadetan finantza-merkatuarekin, pandemiarekin edo gerren ondorio ekonomikoekin loturiko krisiek gehien kaltetutako izan den belaunaldiarentzat.

Gazteriaren egoera ekonomikoa nabarmen prekarizatu da 2008ko krisiaz geroztik. Emantzipazioari buruz ari bagara, lan merkatuak iraupen laburreko enpleguak, enplegu prekarioak edo lanaldi partzialekoak eta babes eskasekoak dituzten langileen taldean kokatzen ditu gazteak; eta, etxebizitza arloan, Espainiako Gazteria Bartzordeko Emantzipazio Behatokiak dioenez, 2023an soilik gazte nafarren % 16,2k lortu zuen ekonomikoki gurasoen mende ez egotea eta emantzipatzeko batez besteko adina 30 urte ingurukoa da.

Azken urteotan bada borondate politikoa gazteen aldi baterakotasunari buruzko zenbateko kezkarriak alderantzizatzeko, esaterako, Espainiako Gobernuak 2022an onetsitako lan erreformaren bidez, bai eta soldata baxuei muga jartzeko ere, gutxieneko soldataren igoera jarraituen bidez –736 eurokoa zen 2017 eta 1.134 eurokoa da 2024an–.

Gazteak Nafarroako herritarren % 20 inguru dira; hala ere, haiengan eragina duten politikak taxutu eta gauzatzekoan gazteen ikuspegia ez da behar beste aintzat hartzen. Hori dela eta, bada garaia gazteen ikuspegia instituzionalizatzeko gobernu-jarduketaren alor guztietan, gazte nafarren arazoei erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

Eskaera hori Europaren Etorbizunari buruzko Konferentziatik ateratako ondorioetan oinarritzen da. Konferentzia hori Europako Parlamentuaren, Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Bartzordearen ekimen bateratua izan zen eta proposatu zuen gazteriaren inguruko inpaktua ebaluatzeko tresnak ezartzea. European Youth Forum-ek –Europako gazte kontseilu nazionalak eta nazioarteko gobernu kanpoko gazte erakundeak biltzen dituen plataforma– “EU Youth Test” edo “Test gaztea” gisa zehaztu zuen neurri hori, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak jada aplikatzen duen ekintza da. Europako Eskualdeetako Komiteak eta Gazteriaren Europako Urtearen

baitan onetsitako Ebazpenak ere eskatzen dute haren aplikazioa.

Adierazle hori Nafarroara ekartzeak gazteriarren egoerari buruzko azterketa zehatza eman ahalko liguke, eta horrela sustatuko litzake, besteak beste, inpaktu-txosten bat egiteari buruzko araudia, halako moduz non aztertuko litzatekeen nolako eragina duten gastu-politikek gazteriarengan, eskubideen subjektu gisa ulertuta, populazioaren beste sektore batzuekin egiten den gisara.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteen ikuspegia instituziona-

liza dezan Gobernuaren jarduketa-eremu guztietan, erantzun eraginkorra eman ahal izateko Nafarroako gazteriak dituen arazoei, neurri hauek behintzat sustatuta:

- Administrazioak bultzaturiko politika eta neurri guztiek gazteengan duten inpaktua ebaluatzeko tresnak sortzea, EU Youth Test-aren inplementazioaren esparruan.

- Beharrezkoak diren arau-aldaketak egitea Foru Administrazioaren politika publikoen ex ante ebaluazioa ezartzeko, gazte ikuspegitik, eta gai bakoitzeko erakunde eta ministerio eskudunek gazteriari buruzko adierazle espezifikoak prestatzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/MOC-00111. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan osasun arloko profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko plan bat taxutzera

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernua premia dezan osasun arloko profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko plan bat taxutzera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroren 8ko 31/1995 Legeak laneko arriskuen aurreko babeserako eskubidea arautzen du 14. artikuluan.

Langileek eskubidea dute laneko segurtasun eta osasun arloan benetako babesa izateko.

Lantokiko indarkeria laneko arriskua dela ulertu behar da.

Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitzen du laneko indarkeria: gertakari bat zeinetan lanarekin lotutako egoeretan pertsona batek tratatu txarrak, mehatxuak edo erasoak pairatzen dituen, baita etxetik lanerako bidean ere, arriskuan jartzeko duena, esplizituki nahiz inplizituki, haren segurtasuna, ongizatea edo osasuna.

Osasun arloko profesionalen aurkako eraso munta handiko arazoa eta errealitatea da, profesional horiek osotasun fisikoari eta ongizateari eragiteaz ez ezik, osasun-zerbitzuaren kalitatea jaistea ere eragiten duena.

Hori horrela, azaldutakoaren babesean;

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Espainiako Gobernua premia dezan osasun arloko profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko plan nazional bat taxutzera.

– Osasun arloko profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko egungo protokoloekin Nafarroan baliatzen ari diren neurriak indartu ditzan.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/MOC-00112. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita C mailan sar ditzan Ezgaitasunaren Arreta Integralerako San José zentroko zaintzaileak

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita C mailan sar ditzan Ezgaitasunaren Arreta Integralerako San José zentroko zaintzaileak.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du:

Zioen azalpena:

Iragan ekainean, Nafarroako Parlamentuaren ordezkartza bat bisitan joan zen Ezgaitasunaren Arreta Integralerako San José Zentrora, foru-erkidegoan halako ezaugarriak dituen zentro publiko-ara. Bisita hartan, bertatik bertara ezagutu ahal izan genituen instalazioak eta zentroko ekipo profesionalak egiten duen lana. Ekipo hori teknikariek eta,

bereziki, arreta zuzeneko langileek osatzen dute, eta haien ahalegina eta dedikazioa funtsezkoak dira desgaitasun intelektual larria edo laguntza trinkoko beharrianak dauzkaten 80 egoiliarren ongi-zatea bermatzeko.

Arreta zuzeneko langileek agerian utzi dute kolektibo horrek 2018az geroztik bizi duen lan-diskriminazioko egoera; izan ere, Hezkuntza Departamentuko zaintzaileen birsailkapena onetsi zen orduan, halako moduan non D mailatik C mailara igaro baitziren. San José zentroko langileak, berriz, neurri horretatik kanpo gelditu ziren, nahiz eta Hezkuntzako langileen jatorri, oposizio, gaitegi eta kontratazio-zerrenda bera izan. Konparaziozko bidegabekeria horrek egoera inkoherentea ekarri du, zeren eta profil profesional bereko langileek ordainsari ezberdinak dauzkaten, zerbitzu ematen duten departamentua zein den.

Zaintzaileen lana ez da lan asistentzial eta afektiboa egitera mugatzen, osasun-, gizarte- eta hezkuntza-arloko betekizunak ere baitauzkate, halako moduan non diziplina anitzeko erantzukizuna ere eskatzen baitzaie, D mailan eskatzen denaz harago doana, bereziki 92/2020 Dekretua indarrean sartu zenez geroztik, are gehiago handitzen baititu horien betekizunak. Kolektibo horrek, zeina gehienbat emakumez osatzen baita, justizia eta haien lanarekiko aitortza eskatzen du, bai eta haien sailkapen profesionala gaurkotzea ere, egiten duten baitezpadako ekarpena balioan jarriko duena.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Egin beharrekoa egin dezan San José zentroko zaintzaileak C mailan sartzeko, Hezkuntza Departamentuari atxikitako zaintzaileekin orduan egin zen moduan.

2. 2025eko aurrekontuan hori egiteko behar den zenbatekoa jaso dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/MOC-00114. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, EH BILDU NAFARROA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Espainiako Barne Ministerioak sarrera eta nazioarteko babes-eskaria ukatu dizkio egoera zaugarrian dagoen zenbait ekintzaile sahararri. Besteak beste, Ali Hammou-ri (minbizia duelako tratamendua jasotzen ari den ekintzaile gormutua) eta Mohamed Ali Slimani-k, haren emazte Rbab al-Tarad Yahi-k eta haien urte eta erdiko alabak osatutako familiari, Sahara Mendebaldeko errepresiotik ihesi zetozenak. Mohamed Bachirren kasua ere salatu izan da, zeinari eskaria ukatu zitzaion, hari dialekto egokia hitz egiten ez zuen interprete marokoar bat esleitu ondoren. Defentsak dio horrek bidezko ordezkari izateko duen eskubidea urratu zuela.

Gaur jakin dugu 30 ekintzaile saharar inguruk gose-greba hasi dutela Madril-Barajas aireportuan, Barne Ministerioak asiloa emateari uko egin ondoren. Iheslari politikoak direla diote, eta jaioterri itzuliz gero euren segurtasuna arriskuan dagoelako beldur dira. Ekintzaileek salatzen dute baldintza osasungaitzetan egon direla asteetan atxikirik, eta eskatzen dute eskariak banan-banan azter daitezela, modu orokorrean errefusatu dituztela uste baitute. Senideek eta manifestariak haien askatasuna eskatu dute Barne Ministerioaren egoitzaren aurrean.

Kontua da Marokoko Erresumak 1975etik ez duela betetzen nazioarteko zuzenbidea Saharako lurraldeen okupazio militarrekin. Okupazio basatia da, nazioarteko zuzenbidea urratzeaz gain, sahararren giza eskubideei etengabe eraso egiten diena.

Espainiak erantzukizun juridiko eta politikoak ditu deskolonizazio-potentzia den aldetik, eta ezin du beste alde batera begira jarraitu Sahara Mendebaldean giza eskubideak sistematikoki urratzen diren bitartean.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Barajasko aireportuan dauden ekintzaile sahararrei asiloa ukatu izana berrazter dezan, horien asilo-eskaria modu justu eta gardenean aztertzen dela bermatuta, nazioarteko zuzenbidearen arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak

har ditzan asiloa eskatu duten sahararren giza eskubideak errespetatzen direla ziurtatzeko; bereziki, jazarpen politikoa edota tortura alegatzen dutenenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, neurri horiek hartzen diren bitartean, ez ditzan Marokora bidal, eta hartu beharreko neurri guztiak har ditzan Espainiako haien egonaldia osasungarritasunez, egoki eta tratu txarrik gabe egiten dela bermatzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentariak: Isabel Aramburu Bergua, Irati Jiménez Aragón, Carlos Guzmán Pérez

11-24/DEC-00042. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitie Dajla-ko wilaya-ko herritarrei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten die errefuxiatu sahararren kanpalekuetako Wilaya Dajlako herritarrei, pasa den irailaren 22an eta 23an bertan izandako eurite gogorrek uholde larriak eragin baitituzte.

2 Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Saharako Ilargi-erdi Gorriak eginiko deia, eta dei egiten die Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako Estatuko gainerako erakundeei premiazko eta larrialdiko laguntza eman diezaieten Dajlan errefuxiatu sahararrei".

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00304. Galdera, ETaren biktimei egindako azken omenaldietan Foruzaingoa egon ez izanari buruzkoa*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, ETaren biktimei egindako azken omenaldietan Foruzaingoa egon ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Foruzaingoa ez du parte hartu Juan Carlos Beiro eta Francisco Casanova ETaren biktimei egindako azken omenaldietan, antolatzaileek gonbita egin arren. Zergatik?

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/POR-00305. Galdera, landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruzkoa*ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, landa-eremuko emakume nafarren estatutua taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Legegintzaldia abiarazi zenez geroztik, aurrebiderik egin al da landa-eremuko emakume nafarren estatutuaren taxuketan?

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/POR-00306. Galdera, berdintasun-teknikariaren lanpostua betetzeko deialdiari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, berdintasun-teknikariaren lanpostua betetzeko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko berdintasuneko hamar teknikari-lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdian ez da jasotzen, betekizunaren artean, arloko prestakuntza edo gaikuntza berariazkoa edukitzea. Zergatik?

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/PES-00399. Galdera, SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Egun, zertan da SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023ko apirilean sinatutako akordioaren puntuen betetzea?

Iruñean, 2024ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00400. Galdera, toki-entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, toki-entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andeari, idatziz erantzun dezan:

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak diru-laguntzen deialdiak egin ohi ditu toki-entitateei laguntzeko; besteak beste, bizikidetzako teknikariaren figura finantzatzekoa eta kulturen arteko bizikidetzaren sustatu eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko proiektuena.

Jakin nahi dugu zer toki-entitateari eman zaion laguntza ekonomikoa diru-laguntzen deialdi horiek abiarazi zirenetik, eta zein izan den urte bakoitzeko zenbatekoa.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00401. Galdera, bakarrik dauden adingabeentzako egoitzabaliabideei buruzkoa*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Kontseilariak bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzko zenbait datu eman ditu Kanarietako hedabideetan. Pisu bakoitzak 5 adingabe hartzeko tokia duela esan du. Ze zentrori buruz ari da? Ez dator bat departamentuak eman zizkigun datuekin.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00402. Galdera, Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer finantzaketa jaso du edo jasoko du Kanarietatik Nafarroara heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzeko?

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00403. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak itxita edukitzeko aurreikusten den egutegiari buruzkoa

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak egindako galdera, Belateko eta Almandozko tunelak itxita edukitzeko aurreikusten den egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zein da Belateko eta Almandozko tunelak egun bat baino gehiago itxita egoteko aurreikusten den egutegia, honako data hauetan?

- 2024ko urriaren 31tik (egun horretarako iragarri da irekiko direla tunelak) abenduaren 31ra bitarte.

- 2025ean.

- 2026an.

– Zein da jarduketa-kronograma xehetua 2024ko abuztuaren 19tik urriaren 31ra bitarte, gaueko obrak eta leherketak egiteko? Adierazi,

zehatz-mehatz, zer jarduketa egingen den eta horiek zein egunetan egitea aurreikusten den.

– Zein izanen da jarduketa-kronograma xehe-tua 2024ko urriaren 31tik 2025eko abendura bitarte aurreikusitako beste edozein itxieran zehar, gaueko obrak eta leherketak egiteko? Adierazi, zehatz-mehatz, zer jarduketa egingen den eta horiek zein egunetan egitea aurreikusten den.

– Zein izanen da jarduketa-kronograma xehe-tua 2024ko urriaren 31tik 2026ko abendura bitarte

aurreikusitako beste edozein itxieran zehar, gaueko obrak eta leherketak egiteko? Adierazi, zehatz-mehatz, zer jarduketa egingen den eta horiek zein egunetan egitea aurreikusten den.

– Nafarroako Gobernuaren ustez, zerk justifikatuko luke Belateko eta Almandozko tunelak berriz ixtea?

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

11-24/PES-00404. Galdera, Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

2021eko abenduan, Valle de Odieta SCL sozietateak ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, 19,119 milioi euroko kalteak konpontzea eskatzeko.

Merkataritza-sozietatearen arabera, kalte horiek heldu ziren ingurumen-baimen integratu

bat ukatu zitzaiolako Ingurumeneko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850E/2018 Ebazpenaren bidez, zeina Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren martxoaren 6ko 25E/2019 Foru Aginduaren bidez berretsi baitzen. Geroago, bi horiek baliogabetu zituen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2020ko abenduaren 21ean emandako epaiaren bidez. Administrazio-ebazpen horiek onetsi izanak eragin omen zuen erreklamatzailen abeltzaintza-ustategia handitzeko proiektua egin edo gauzatzea atzeratu zedin.

Nafarroako Kontseiluak ebazpen bat eman zuen 2023ko abenduaren 22an, zeinean kontsulta- organoak baitzioen kalte antijuridiko bat zegoela, eta lortu gabeko irabazia dela-eta jaso beharreko kalte-ordaina 3.751.753 eurokoa zela, INTIA enpresa publikoak proposatu zuen bezala.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu zuen Valle de Odieta SCL sozietateak planteatu zuen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa dela-eta?

2. Onartu al zen Kontseiluaren iritzia, zeinean 3.751.753 euroan balioetsi baitzen lortu gabeko irabazia dela-eta sortutako kaltea?

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-24/PES-00405. Galdera, Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Solaria enpresak Adiosen eta Muruzabalen sustatutako Serena Solar 1 eta 3 plantetarako

ezetzaren lehenbiziko ebazpena eman ondotik, Lurralde Kohesiorako kontseilariak foru-agindu bidez baietsi zituen enpresak aurkeztutako alegaziorik gehienak, eta ezetsi zituenen kasuan, kasuko baimena lortzeko zer egin behar zuen iradoki zion.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

– Solaria enpresak Serena Solar 1 eta 3 proiektuen egokitzapenik aurkeztu al du, Lurralde Kohesiorako kontseilariaren uztailleko foru-aginduan emandako jarraibideetan oinarrituta?

– Solaria enpresak beste proiekturik aurkeztu al du Adiosko, Muruzabalgo edo Utergako udal lurretan?

– Hala baldin bada, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Klima Aldaketaren Legean jasotako neurriak sustatuko al ditu proiektu horien aurkako "errefus sozial nabaria" ikusita, errefus hori arintzen laguntzeko (esate baterako, parkearen jabetza inguruneari irekitzea edo tokiko energia-erkidegoekin lankidetzan aritzea)?

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-24/PES-00406. Galdera, Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da, gaur, Belosoko BHZren, Ilundain/Etxegaraiko BHZren eta Martzillako BHZren okupazioa?

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00407. Galdera, Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn azken urte honetan kontratatutako langile-bilakaera hilabeteka?

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

101/2024 Ebazpena, urriaren 1ekoa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez agintzen baita ahoz erantzuteko galdera bihurtadila osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzko galdera idatzia

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak eskatu du ahoz erantzuteko galdera bihurtadila osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzko galdera idatzia (11-24/PES-00359).

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 215.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Gobernuari galdera igorri eta hamabost eguneko epean eman behar da galdera baten idatzizko erantzuna. Eta 215.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Legebiltzarreko Lehendakariak galderari idatziz erantzuteko beste epe bat ezartzen ahal du –galderagileak hala eskatuta–, edo agintzen ahal du sar dadila dagokion batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan, ahozko erantzuna eman dadin, lehen aipatutako epean idatzizko erantzunik eman ez bada. Hain zuzen ere, hori gertatzen da Marta

Álvarez Alonso andreak aurkeztutako eta ebazpen honi atxikitako galderarekin. Hori horrela,

EBATZI DUT:

1. Xedatzea Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sar dadila osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzko galdera, kasuko kontseilariak ahoz erantzun dezan.

2. Erabaki hau Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari eta Marta Álvarez Alonso andreaki igortzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

102/2024 Ebazpena, urriaren 1ekoa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez agintzen baita ahoz erantzuteko galdera bihurtadila erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak eskatu du ahoz erantzuteko galdera bihurtadila erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera (11-24/PES-00360).

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 215.1 artikulua ezarritakoari jarraikiz, Gobernuari galdera igorri eta hamabost eguneko epean eman behar da galdera baten idatzizko erantzuna. Eta 215.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Legebiltzarreko Lehendakariak galderari idatziz erantzuteko beste epe bat ezartzen ahal du –galderagileak hala eskatuta–, edo agintzen ahal du sar dadila dagokion batzordearen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan, ahozko erantzuna eman dadin, lehen aipatutako epean idatzizko erantzunik eman ez bada. Hain zuzen ere, hori gertatzen da Marta

Álvarez Alonso andreak aurkeztutako eta ebazpen honi atxikitako galderarekin. Hori horrela,

EBATZI DUT:

1. Xedatzea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sar dadila erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzko galdera, kasuko kontseilariak ahoz erantzun dezan.

2. Erabakia hau Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariari eta Marta Álvarez Alonso andreaki igortzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**11-24/ACOP-00001. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia,
Ekialde Hurbileko gatazka dela-eta**

2024ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Nazioarteko Zuzenbidea eta bide diplomatikoak balia daitezen Ekialde Hurbileko estatuetan bizi den egoera larria bideratzeko eta aurreikusi ezinezko eta izugarritzko ondorioak ekarriko lituzkeen gerra-eskalada saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta NBEren ebazpenak bete ditzan exijitzen dio Israeli.

3. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasuna eta herrialde kideak premiatzen ditu prozesu diplomatiko bat gidatu dezaten, eskualde horretan bake justu eta iraunkorra lortzeko eta kaltetutako lurraldeen leheneratze eta berreraikitze plan bat ezartzeko.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

